

ERANSKINAK

1. Eranskina: Testuingurua

Unkina Eusko Jaurlaritzaren menpeko D ereduko ikastetxe publikoa da. Eskola hau 1984-85 ikasturtean sortu zen “Unkina Ikastetxea” izenarekin, B eta D ereduko hurrekin, nahiz eta gaur egun D eredukoa den. Unkina baino lehen, Unkina (Oinkina) plazan egun Osasun Zentroa dagoen eraikinean zegoen aurreko ikastetxea, “Colegio Nacional Licenciado Lumbreras” izenekoa. Ezin daiteke aipatzeko utzi Unkina Usansoloko ikastetxe bakarra dela, Ikasle kopuruaren arabera 270-280 inguruko matrikulazioa izan da azken urteotan Haur eta Lehen Hezkuntzan, honek herriko haurren %90 inguru osatzen duelarik. Atzerritarren kopurua aldakorra izan da azken urteotan, batez beste %3.5 suposatzen duelarik.



1. irudia. Unkina Ikastetxea (2014)

Haur Hezkuntzako gelek bi espazio nagusi dituzte, batetik, korroa egiten den lekua, bestetik, txokoak, eta hauek gauzatzeko beharrezkoak direnak; mahaiak eta hauen kokapena, arbelak, tiraderak, ordenagailuak, arbel digitala, materialez jositako apalategiak; liburuak, aldizkariak, ipuinak, argazkiak, puzzleak, margoak... Ikasleak, goizero korroan esertzen dira, bukatutakoan nahi duten txokora doaz. Egunero 3 geletan egoten dira, plastika-eraikuntza gelak + musika, ingelesa, psikomotrizitate, aretoa edo liburutegian.

2. Eranskina: Metodologia. Asko dira baina beste eskoletako praktikekin ezberdinak direnak:

Unkinan, irakaskuntza aktiboari, norberaren ekintzari eta jolasari garrantzi handia ematen zaio. Ondorioz, hurrek bere esperientziatik ikas dezaten lortu nahi da, hau da, beste pertsona eta objektuekin dituzten harremanetatik, alegia. Harreman hauek aurrera eramateko tresnarik pribilegiatuena, jolasa izango da. Honen bitartez hurrek, era motibagarri eta atseginean, eta akatsak edo porrot egiteko beldurrik gabe hainbat gauza ikasteko aukera izango dute. Hau guztia kontuan hartuta, hauek lantzeko, Unkinako Haur Hezkuntzan beste hainbat ikastetxeetan erabili ohi diren txokoen metodologia erabiltzen dute, batetik. Bestetik, astean behin, kasu honetan asteazkenetan, lan kooperatiboetan, ordu erdiz dabilta.

Txokoen diseinua: txoko irekiak gela irekietan eta aktibitate ez zuzenduta baina bai arautua. Hau da, umeari ez zaio eskaintzen nahitaezko jarduera itxi bat eta denbora zehatz batean. Umea berak erabakitzen du non egingo duen lan, hori bai, aukeratzea derrigorrezkoa da. Behin aukeratuz gero ezin izango du aldatu hasitako lana-aktibitatea amaitu arte (autonomia eta erabakien ondorioen onarpena). Txoko batzuetan zerrendan bere izena idatzi beharko du txanda itxaroteko. Ume batek ez badu inoiz txokoz aldatzen irakasleak animatu eta lagunduko du. Hau gerta ez dadin geletako hormetan behaketa erregistro orriak dauzkate.

Taldeak txikiak direnean nahasi egiten dira umeak, adibidez 4 eta 5 urtekoak. Aurten, talde handiak direnez, 5 urteko gelan 42 ume adibidez, nahaste hau ezberdin burutu da, 42 ume bi gela ireki nagusitan. Hala ere, gogoratu, umeek imitazioz ere asko ikasi ahal dutela, eta garapen hurbileko eremuaren teoriak defendatzen duena oso konpatiblea da praktika honekin, urte bat nagusiagoa diren umeengandik asko ikasi ahal dela, eta era berean urte bat txikiago den ume bati zerbait azaltzean umea bera sendotu eta garatzen du bere ezagutza. Eskaintzen diren txokoak: *Plastika gela*: liburutegia, ordenagailuak, birziklatutako materialekin konposizioak egin, margo-keta (zerak, errotulkiak,...), kabailleteak (tenpera)... *Eraikuntza gela*: Eraikuntzak (mahai gainekoak eta lur gainekoak), ordenagailuak, mahai gaineko jolasak, puzzleak, kartak... Ume kopurua txikiagoa denean 3. gela bat egoten da, *Ezagutza fisikoko gela*. Aipatu dudanez, ume eta hezitzaile kopurua dela eta aurten gela hau ez da sortu. Hala ere, gela honetan burutzen

ziren jarduerak hileru jarduera “berezi” bezala burutu dira, etapa bakoitzean premiei erreparatuta ezberdinak, hala nola, ura, ponpak, errezetak, aroztegia, makillajea, zukuak, e.a.

Unitate didaktikorik ez erabiltzea. Beste ikastetxe askotan lan-proiektuei eta unitate didaktikoei tratamendu zentrala ematen zaie curriculumean, hau da, ardatz metodologikoak dira egunerokotasuna bideratzeko eta ikasturtea planifikatzeko, hauek gabe ez dago metodologia ulertzerik. Unkina eskolaren kasuan ez da horrela, ez dute horrelako programaziorik erabiltzen haien ustetan umeen interesetatik abiatu nahi badugu gure praktika, errealitatea aldakorra eta bizia baita. Hau da, *zelan planteatu umei udazkenaz hitz egin, margotu, ipuinak entzun, pelikulak ikusi eta abestu behar dutela, agian Saharatik etorri berri den ume berri bat daukagunean gelan, eta hori gai garrantzitsuena bilakatu denean?, edota gelako ume baten ama haurdun dagoenean, zelan ez aprobetxatu aukera?, (umeei hala eskatzen badute noski).*

Honek ez du ukatzen gai asko lantzen ez direnik, kontrakoa. Baina eskolako Haur Hezkuntzako irakasleek ez dute partekatzen gaiak beti hain intentsiboki landu behar direnik. Normalean ez diote hainbesteko denbora eskaintzen gai bati eta gaien tratamendua askoz malguagoa da. Umeen interesen arabera hartuko du norabide bat, edo beste, edo amaituko da interesa desagertzen denean. Are gehiago, euren ustetan unitate didaktikoen kontzeptu estandar eta ohikoak diren planifikazio mota gehienak, irakaslearen antolaketa beharrei begira egiten dira, eta ez, umeen jakin-minaren ezaugarrietan pentsatua.

Lan kooperatiboa: Proiektua berritzeguneak proposatu zuen eta benetako izena “IK/KI PROGRAMA (<<Ikasteko kooperatu/Kooperatzen ikasi>>) da: “Programaren gaia ikasleen jardueraren antolaketa kooperatiboa da eta hezkuntza-premia askotarikoak dituzten ikasle guztiek elkarrekin ikastea ahalbidetzeko diseinatu da.” Ikasleek lantalde txikiak osatzen dituzte, elkar laguntzeko eta adoretzeko ikasteko orduan. Ikasle bakoitzak ikastea ez ezik, bere ikaskideek ere ikas dezaten laguntzea bilatzen da.

Osaketa heterogeneoko taldeak osatzeko, gela osoko ikasleak hiru azpitaldeetan banatu behar dira:

Laguntzeko gaitasun handiena dutenak...	Taldeko gainerako ikasleak...	Laguntza gehien behar dutenak
O O O O O O	A A A A A A	E E E E E E
O A A E		

1.taula. Talde heterogenoak osatzeko irizpideak.

Argi atera dezakegun ondorio garrantzitsuena zera da, taldean lan egiteko modua ezberdina dela eta bestetik, lehen “kolaboratu” eta “kooperatu” sinonimotzat hartzen zituztela eta orain esanahi desberdinak ematen zaizkiela:

Kolaboratu: Co-laborare Laboro, -is = lana, ahalegina “Norbaitekin lan egin” adoretzea” Lankide izateko gaitasun maila bertsua eduki behar da: ez berdina, ez oso desberdina, baizik antzekoa, eta ez da beharrezkoa lagunak izatea.

Kooperatu: Kooperatzeko ez dio axola gaitasun-mailak, baina garrantzi handikoa da lagun izatea.

Jarduerak burutzeko erabilitako lankidetza egiturak:

Arkatzak erdira: Irakasleak ikasgelan lantzen ari diren gaiari buruz oinarri taldeak dituen kideak adina galdera edo ariketa dauzkan orri bana emango dio talde bakoitzari. Ikasle bakoitzak galdera bat erantzuteko edo ariketa bat egiteko ardura hartuko du bere gain (ozenki irakurri behar du, kide guztiek informazioa ematen dutela ziurtatu eta adostutako erantzuna guztiek dakitela eta ulertzen dutela egiaztatuko du). Nola egiten den eztabaidatzen duten eta erantzun egokia zein den erabakitzen duten bitartean, guztien arkatzak mahaiaren erdian jarriko dituzte. Guztiek argi dutenean (galderaren edo ariketaren arduradunak guztiek ongi ulertu dutela eta zer egin behar duten edo zer erantzun behar duten argi dutela egiaztatuko du), bakoitzak bere arkatza hartuko du eta bere koadernoan idatziko du erantzuna edo lantzen ari diren ariketa egingo du dossierrean. Une horretan ezingo dute hitz egin, idatzi besterik ez. Gauza bera egingo dute ondoren gainerako ariketekin, guztiek jarduera amaitu arte.

Folio birakaria: Irakasleak ataza bat betetzea eskatuko die oinarri-taldee (hitz zerrenda bat, ipuin bat idaztea, gai bati buruz dakizkiten gauzak adieraztea haien hasierako ideiak ezagutzeko, irakurri duten testuaren edo ikasi duten gaiaren ideia nagusia laburbiltzen

duen esaldi bat, eta abar). Taldeko kide bat bere zatia folio «birakari» batean idazten hasiko da eta erlojuaren orratzen norabidean ondoan duenari pasako dio egitekoaren bere zatia folioan idatz dezan. Horrela jarraituko dute taldeko kide guztiek egitekoan parte hartzen duten arte. Taldeko kide batek bere zatia idazten duenean, gainerako kideak adi egongo dira, lagundu egingo dute, zuzendu... guztiak baitira taldeak sortzen duenaren erantzule (ez bakarrik dagokien zatiarena).

3. Eranskina: Helburu eta eduki orokorrak

Helburuak:

Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala

9.– Eginkizun errazak gauzatzeko edo arazoak konpontzeko, norberaren ekintzaren plangintza egitea eta ekintza sekuentziatzea; frustrazio txikiak onartzea, aurkezten zaizkion zailtasunak gainditzera daraman jarrera adieraztea, eta besteengan beharrezko lankidetzara bilatzea. N9

Ingurunearen ezaguera

1.- Ingurune fisikoa, naturala eta soziala modu aktiboan aztertzea eta esploratzea, eta ingurune horiek ezagutzeko interesa erakustea, ingurune horietako kide diren sentipena garatzeko eta haietara nolabaiteko segurtasunez eta autonomiaz moldatzeko. I1

2.– Portaera sozialeko oinarritzko arauak arian-arian barneratzea, eta beren jokabidea arau horietara egokitzea, gero eta modu orekatuagoan eta hobean. I2

4.- Ingurune fisikoa ikertzea eta bertako zenbait elementuren ezaugarriak identifikatzea, haietan jarduteko eta haietan eraldaketak sortzeko gaitasuna garatze aldera. I4

5.- Elementuen eta bildumen tasunak identifikatzea eta taldekatze-, sailkatze-, ordenatze- eta kuantifikatze harremanak ezartzea, pentsamendu logiko-matematikoa garatzeko eta horren adierazpideak ikasten hasteko. I5

Hizkuntzak: Komunikazioa eta adierazpena

1.– Hizkuntza horiez guztiez jabetzea pixkanaka, beharrak, lehentasunak, sentimenduak, esperientziak eta errealitatearen errepresentazioak adierazteko. H1

2.– Gorputz, plastika, musika eta teknologia-hizkuntzekin saiakuntzak egitea, haiekiko interesa erakustea eta erabiltzea, hartara, bai egoerak, bizipenak, beharrak eta inguruko elementuak adierazteko, bai eragin estetikoak eragiteko eta gozatzeko ere. H2

Edukiak:**Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala:****1. Blokea: Gorputza eta norberaren irudia**

- *Gorputza eta kanpoko errealitatea aztertzean zentzumenak erabiltzea, eta hautematen diren sentrazioak eta pertzepzioak identifikatzea. N1.1*
- *Norberaren gorputzari lotuta, espazio-erreferentziak ezartzea. N1.2*

2. Blokea: Jolasa eta mugimendua

- *Manipulazio-trebetasunak koordinatzea eta kontrolatzea, eta usu baliatzen diren tresnak modu eraginkorrean erabiltzea. N2.1*
- *Jolasaren bitartez ingurunea aztertzea: mugimen- eta zentzumen-jolasak, jolas sinbolikoak eta arauak dituztenak. Jolasa gozatzeko eta ingurukoekin harremana izateko bidetzat hartzea. N2.2*
- *Jolasen arauak ulertzea eta onartzea. Arauak beharrezkoak direla ohartzea eta arautzen parte hartzea. N2.3*
- *Tonua eta jarrera besteen, objektuaren, ekintzaren eta egoeraren ezaugarrietara egokitzea. N2.4*

3. Blokea: Jarduera eta egunerokotasuna

- *Ekimena eta gero eta autonomia handiagoa izatea eguneroko bizitzako berezko jarduerak gauzatzen. N3.1*
- *Jarduera horiek gauzatzean, norberaren eta besteen aukerak eta mugak onartzea. N3.2*
- *Ekintzaren plangintza sekuentziatua egitea eginkizunak gauzatzean, eta haien ondorioak egiaztatzea. N3.3*
- *Antolakuntzari, konstantziari, arretari, ekimenari eta ahaleginari loturiko ohiturak eta jarrerak garatzen hastea. N3.4*

- *Jarrera positiboa izatea helduekin eta parekoekin, afektuzko eta enpatiazko harremanak ezartzeko. N3.5*
- *Taldeko eginkizunetan, elkarri eragiten eta lankidetzan aritzeko aldeko jarrera izatea, eta inguruko zailtasunen aurrean sentikortasuna erakustea. N3.6*
- *Egunerokotasuna arautzen duten taldeko arauak eztabaidatzea, haien inguruko gogoeta egitea, aintzat hartzea eta errespetatzea. N3.7*
- *Ondo egindako lanari garrantzia ematea, akatsak aitortzea eta ekintzak hobetzeko zuzenketak onartzea. N3.8*

4. Blokea: Norberaren zaintza eta osasuna

- *Laguntza behar duten egoeretan laguntza eskatzea eta onartzea. Besteen laguntzeko jarrerari garrantzia ematea. N4.1*

Ingurunearen ezaguera

1. Blokea: Ingurune fisikoa: elementuak, harremanak eta neurria

- *Ingurunean dauden objektuak eta materiak, haien funtzioak eta eguneroko erabilerak aztertzea. Norberaren eta besteen objektuak errespetatzea eta zaintzea. II.1*
- *Objektuen eta materiaren zenbait berezitasun bereiztea: kolorea, itxura, funtzioa... Objektuen arteko antzekotasunak eta aldeak hautematea. II.2*
- *Elementuak sailkatzea. Multzo batekoa izatea eta ez izatea. II.3*
- *Ezaugarriak (tamaina, kopurua...) eta ezaugarrien mailak (gutxi, asko, txikia, ertaina, handia...) identifikatzea. Bildumak zenbakiak erabili gabe zenbatzea (asko, gutxi...). II.4*
- *Objektuen bildumak kuantitatiboki alderatzea. II.5*
- *Berdintasunak eta desberdintasunak egitea (beste, baino gehiago, baino gutxiago...). II.6*

- *Bilduma bat osatzen duten elementuen kalkulu zehatza egitea. Maneiagarri diren kopuruen zenbaki kardinalak erabiltzea. Kontatzeko zenbaki-segida ahoz erabiltzea. II.7*
- *Eguneroko bizitzan zenbakiak duten balio funtzionala eta zenbakien baliagarritasuna aztertzea eta horretaz jabetzea. II.8*
- *Eragiketa errazak egitea eskatzen duten problemak ebaztea (kendu, gehitu, banatu...). II.9*
- *Neurtzea eskatzen duten egoerak identifikatzea. II.10*
- *Hastapen gisa, ohikoak eta ez-ohikoak diren zenbait neurri eta neurtzeko tresna ezagutzea eta erabiltzea. II.11*
- *Norberak eta objektuek espazioan duten kokalekua. Posizio erlatiboak. II.12*
- *Irudi lauak eta hiru dimentsiokoak identifikatzea inguruneko elementuetan. Oinarrizko zenbait gorputz geometriko aztertzea. II.13*

3. Blokea: Kultura eta bizitza gizartean

- *Portaerazko jarraibide egokiak eta bizikidetzako oinarrizko arauak arian-arian eta modu aktiboan barneratzea. Gatazkak elkarrizketaren bitartez konpontzeko bidean, parte-hartze gero eta handiagoa izatea. I3.1*

Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena

1. Blokea: Hitzeko hizkuntza. Entzutea, hitz egitea eta berbetan aritzea.

- *Eguneroko egoeretako helduen eta beste haur batzuen komunikazio-asmoak ulertzea. H1.1*
- *Ohiko komunikazio-egoeretan parte hartzea eta modu aktiboan entzutea. H1.2*
- *Hizketaldiak eta elkarrizketak hasteko eta haiei eusteko estrategia egokiak erabiltzea (apelazioak, esku-hartzeetan txandakatzea, ikusizko harremana...). H1.3*
- *Ahozko hizkuntza komunikaziorako tresna gisa eta norberaren eta besteen jokabidea arautzeko laguntza gisa hartzea eta balioestea. H1.4*

- *Hizkuntzak eta dialekto-aldaerak erabiltzeko interesa izatea eta errespetatzea. H1.5*
- *Hizkuntza idatzira hurbiltzen hastea. H1.6*
- *Hizkuntza idatzira hurbiltzen hastea, komunikatzeko, informatzeko eta gozatzeko bide gisa. H1.7*
- *Testu idatzietan izaten diren irudiak manipulatu eta interpretatzea, eta irudien eta testuen artean esanahi-harremanak ezartzea. H1.8*
- *Idatzizko moduak eta adierazpen grafikoko bestelako modu batzuk (marrazkiak, grafikoak, zenbakiak...) bereiztea. H1.9*

2. Blokea: Ikus-entzunezko hizkuntza eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.

- *Tresna teknologikoak erabiltzen hastea; besteak beste, ordenagailua, unitate periferikoak, soinu- eta irudi erreproduzitzailak edo kamerak, irakaskuntza eta komunikazioa errazteko tresna baitira. H2.1*
- *Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak behar bezala eta modu esanguratsuan erabiltzeko beharraz jabetzen joatea. H2.2*
- *Ikus-entzunezko ekoizpenak ikustea, hala nola filmak, bideoak edo irudien aurkezpenak. Horien edukiei eta estetikari buruzko balioespen pertsonala egitea. H2.3*
- *Errealitatea eta ikus-entzunezko adierazpena bereizten ikatea pixkanaka. H2.4*

3. Blokea: Arte hizkuntza.

- *Plastikako ekoizpenak egitea hainbat material eta teknika erabiliz. H3.1*
- *Plastika-hizkuntza osatzen duten zenbait elementuren berri izatea (lerroa, itxura, kolorea, ehundura, espazioa...) eta horiekin saiakuntzak egitea. H3.2*
- *Plastikako hainbat lan mota gero eta modu doituagoan interpretatzea eta balioestea. H3.3*

- Ekoizpen artistikoko talde-proiektuetan parte hartzeko ekimena eta interesa izatea. H3.4

4. Eranskina: Daniel Tamayo Pozueta (Bilbo 1951)

Hirurogeiko hamarkadaren amaieran, Daniel Tamayok aparejadore ikasketak hasi zituen, baina laster baztertu zituen, eta, gero, publizitateko marrazkilari gisa aritu zen denbora laburrez. 1969 eta 1970. urteen arteanartzelona bizi izan zen, eta, han, Diseinua, Marrazketa eta Pintura ikasi zituen. Gero, Londresen eta Parisen bizi izan zen tarte laburrez, eta, 1970eko udazkenean, bokazio artistikoari heldu eta **Bilboko Arte Ederren Eskola** sortu berriko lehenengo promozioan sartu zen. Prestakuntza hori jaso ostean, ibilbide artistikoa eta irakaskuntza uztartzen hasi zen. 1980an, **Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateko Pintura Saileko** irakasle bihurtu zen, eta, gaur egun ere, horretan jarraitzen du.



2-3. irudiak. Daniel Tamayo artista eta obrak (2011)

Hasieran, pop mugimenduko zenbait joeretatik eratorritako figurazioaren eragina jaso zuen, eta, era berean, Espainiako arte garaikideko erreferentziazko figura batzuen eraginpean egon zen, esate baterako, **Luis Gordillo**ren eraginpean. Geroztik, Daniel Tamayok izaera artistiko sendoa eraiki du bere ibilbide osoan zehar, eta, ondorioz, bere lanak erraz identifikatzeko modukoak dira. Tamayoren figurazio-kode pertsonalak zenbait ezaugarri nagusi ditu: marrazki geometrikoekiko joera, objektu-izaerako formen erabilera, eta tinta lauko polikromia bizia. Tresna horiek erabiliz, munduaren errealitateari buruz duen ikuspegi konplexua erakusten digu, eta, horretarako, bere bizipenetatik eta fantasiatik sortutako alegiazko eszenatokiak erakusten ditu. Laurogeiko hamarkadaren hasieran, pinturaren hiru dimentsioekiko interesa agertu zuen batez ere, eta, horrela, elementu geometriko eta arkitektonikoak naturako eta alegiazko paisaiekin erlazionatu zituen. Horrela, lurralde zabalak sortu zituen koadroaren esparruan, eta, zerumuga goi-goian jarrita, mota guztietako pertsonaia, objektu eta zeinuz osatutako katalogo trinkoa landu zuen, elementu horiek zerutik ikusita baleude

bezala. Egileak berak aitortzen duen bezala, Metodologia eta Proiektu Piktorikoa ikasgaiko irakasle gisa aritu ostean, “benetako esparruen barruan objektuak proiektatzeko esperientziak –horretarako, marrazki lineala, perspektiba, akuarelaz koloreztatutako grafitoa, fotomuntaia eta abar aplikatzen nituen– hiru dimentsioko formen edertasunarekiko sentsibilizatu ninduen”.



4. irudia - Puerto platón – (2003)



5. irudia - Aralar - (2007)

Errepresentazio panoramiko hauek gure inguru geografiko eta sozialaren metafora dira, eta, beraien bitartez, Tamayok begirada bikoitza proposatzen dio ikusleari: osotasunaren ikuspegi globaletik zehar ibiltzea, eta, aldi berean, adi kontzentratzea multzoa osatzen duten elementu ugarietan, ikusleak osatu dezan bere alegia propioa. Mihisea kultur adierazpen ugariatatik jasotako irudiz betetzen da: arte primitiboko ikonoak, umeen munduko eta imajinazioko irudiak, geometriak, alfabetoak, zeinuak eta sinboloak, graffitiak, irudi erlijiosoak eta miniaturak, artisautza, folklorea eta zirkua, publizitatea, diseinua eta komikia, literatura... Denak balio du, Tamayoren imajinazioak narrazio nahasi eta fantastikoa osatu dezan, XV. mendeko margolari italiar eta flandestarrak gogoraraziz –**Ucello, Fra Angelico, Brueghel**...–. Izan ere, Tamayok onartzen du, 15 urte eskas zituela, **Boscoren Gozamenen lorategia** lana ikusi zuela **Pradoko Museoa**n, eta horrek izaera fantastikoko narrazio piktorikoekiko gustua finkatu ziola. Apurka-apurka, formen errepertorio hori handituz joan zen, eta presentzia bisual handiagoa hartu zuen konposizioetan. Aldi berean, geometria protagonismoa galduz joan zen, eta euskal geografiako paisaiak agertzen hasi ziren, forma malgu, ireki eta organikoagoak erabiliz. Irudien unibertso hori erakusteko, irudiak mihisean islatu aurretik, egileak zehaztasun osoz aztertzen ditu konposizioetan. Bere ibilbide oparoan zehar, Tamayok estrategia sortzaile jakin bat landu du, eta, horri esker, margolariak mihise zuriaren aurrean daukan horror vacui delakoa urrundu egiten da. Egileak azken muturreraino kontrolatzen du irudiak eraikitzeke garapen sortzailea, bat-batekotasuna saihesten duen metodologia arretatsuaren bitartez. Prozesu honetan, marrazkia modu sistematikoan

erabiltzen da irudien genesian, eta ohar-koadernoetan geratzen dira jasota, edo, margolariak deitzen dien moduan, “landa-laneko libretetan”. Bertan, arkatzez egindako irudiak jasotzen ditu, eta, horiekin batera, ordenagailuz egindako irudiak, argazkiak, panpinak eta jostailuak, oroigarriak eta mota guztietako figurak ere biltzen dira, hori baita Tamayoren koadroen lehengaia. Gero, zirriborroak linean marrazten ditu, eta, bertan, aukeratutako elementuak eszenatan sartzen dira, programa ikonografiko moduko bat osatuz. Ondoren, zirriborro hori mihisera eramaten du, zenbait aldaketa eginez. Prozesu horren ostean, Tamayok pintzelak eta olio hartzen ditu, garapen piktorikoari ekiteko.

Azken emaitza konposizio nahasia izan ohi da, “irudien fitxategia”. Tamayok barne-ordena ematen dio emaitza horri, eta, kasuaren arabera, jai-girokoa, ironikoa, ludikoa edo surreala izan daitekeen espirtua ematen dio. Erakusketa honen izenburuko alegiak hitzak fikziozko izaera horri egiten dio erreferentzia, izaki bizidun edo bizigabeen inguruan eraikitako asmakuntza horri, alegia.

5. Eranskina: Zergatik *Cosmología Acrobática*?



6. irudia - *Cosmología Acrobática* - (2009)

Asmoak asmo, lanean zehar aitortu dudan moduan, asko kostatu zait artista aukeratzea. Hainbat obren artean *Cosmología Acrobática*, egia esan ez da bereziki gustatzen zaidan koadroa, honek beste askok bezala geometria, animaliak, zirkuko motiboak... ditu, hau da komeni zitzaizkigun elementuak batetik, bestetik, umeen gustukoak.

Eskarmentu apur bat badaukat horrelakoetan. Nire asmoak nahiko argi nituen, “lehengai ona” behar nuen, hots, manipulazioak-manipulazio, grafikoki kalitatea altua zuen koadroa, batetik. Bestetik, zenbat eta famatuago are eta informazio gehiago. *Cosmología Acrobática* Danielen *Fabulario* bildumako obra protagonista denez, aipatutako kalitatea, beste edozein aukeratuta baino errazago lortuko nuelakoan nengoen. Eta erdixka asmatu nuen. Obra honek Bilboko Arte Eder Museoan online jolas bat bazuen, beste munduko ezer ez zen, baina tira, IKTak erabiltzeko beste bazen.

6. Eranskina: Gorputz geometrikoak, biratzen dutenak. AURRETIKO JARDUERA.



Baliabideak:

- **Giza baliabideak:** 3
- **Baliabide materialak:** Gorputz geometriko gardenak, sortutako fitxa, arkatzak.


Denboralizazioa: 45'

Prestaketa aldia: Proiektuari hasiera emateko jarduera sinplea eta era berean esanguratsua, *zeinek biratzen du? Zeinek ez?*

Garapena:

GORPUTZ GEOMETRIKOAK	BIRATZEN DUTENAK	EZ DUTENAK BIRATZEN	BESTEAK ADOS?
GORPUTZ ADOS ANE	ADOS	ADOS	BAI
ASIER		ADOS	BAI ARIANE EZ??
ARIANE		ADOS	BAI


7.1. irudia. Gorputz geometrikoak fitxa A aldea.



7.2. irudia. Gorputz geometrikoak fitxa B aldea.

GORPUTZ GEOMETRIKOAK	BIRATZEN DUTENAK	EZ DUTENAK BIRATZEN	BESTEAK ADOS?
ITXASNE			ANTONIO XABIER AK
ANTONIO			BESTE AK
XABIER			ADOS BESTE AK

8.1. irudia. Gorputz geometrikoak fitxa A aldea.



8.2. irudia. Gorputz geometrikoak fitxa B alde.

Ebaluazioa:

- Helburuak: BAI
- Edukiak: BAI
- Denboralizazioa: ONDO
- Baliabideak:
 - Giza: ONDO
 - Materialak: ONDO
- Egokitasuna: EGOKIA
- Oharrak: Ahalegin handiak egin dituzte ados jartzen, idazten eta fitxa ondo betetzen.

7. Eranskina: Aurkezpena. AURRETIKO JARDUERA.

Baliabideak:

- **Giza baliabideak:** 2
- **Baliabide materialak:** Argazki kamera, altxorren fitxa.

Denboralizazioa: 20'

Prestaketa aldia: Irudi segidan ikusi daitekeen bezala, Tamayoren *Cosmología Acrobática* obra aztertuz eta sinplifikatuz, “altxorraren bila” fitxa sortu dut (*ikus. sinplifikazio prozesuko argazkiak*). Fitxa honetan aipatutako obran agertzen diren hainbat irudi geometriko agertzen dira.



9. irudiak. Sinplifikazio prozesua

Ebaluazioa:

- Helburuak: BAI
- Edukiak: BAI
- Denboralizazioa: ONDO
- Baliabideak:
 - Giza: ONDO
 - Materialak: ONDO
- Egokitasuna: EGOKIA
- Oharrak: Ondo ulertu dute egin beharrekoa. Ardurari garrantzi handia eman diogu, denok eraman behar dugu argazki kamera etxera, arazorik izatekotan gelan kontatu. Mertxek eta Amaiak aurretiaz familiekin berba egin dute, beraiek ere zeregina zein den ondo jakin dezaten. Hala ere, ondo azpimarratu diete lanaren eta kameraren ardura umeena dela.

8. Eranskina: Argazkilariak altxorren bila. AURRETIKO JARDUERA.


Baliabideak:

- **Giza baliabideak:** 2
- **Baliabide materialak:** Argazki kamera, altxorraren bila fitxa, objektu geometriko batzuk; piramide bat, diabolo bat eta kutxa bat.

Denboralizazioa: 10'.

Prestaketa aldia: Etxetik objektu batzuk hartu eta eskolara eraman ditut.

Garapena:



10. irudia. Altxorraren bila fitxak.

Ebaluazioa:

- Helburuak: BAI
- Edukiak: BAI
- Denboralizazioa: ONDO
- Baliabideak:
 - Giza: ONDO
 - Materialak: ONDO.
- Egokitasuna: EGOKIA

- Oharrak: Umeak ardurak kunplitzen dabilta eta hori pozgarria da. Egunero errutinetan tartetxo bat egiten diote *altxorrari*. Eguneroko lan txiki hori oso garrantzitsua da eta nabaria izan da nik nire etxeko *altxorrak* erakutsi dizkiedanean, gorputzen identifikazioan batik bat. Kamera, batak-besteari uztearena Mertzek dirigitzen du; bizilagunak edo gertu bizi direnei ematen saiatzen da, horrela asteburuetan edo kalean elkar ikusten badute trukea egin dezaten.

9. Eranskina: Objektuen azterketa eta deskribapena. TREBAKUNTZA JARDUERA.

Baliabideak:


- **Giza baliabideak:** 3
- **Baliabide materialak:** Sortutako fitxa, etxetik gelara ekarritako “altxorrak”, zuzenkia, pisua, arkatzak eta margoak.

Denboralizazioa: 80’.


Prestaketa aldia: Aurretiaz, fitxa bat sortu dugu, (*ikus 1. fitxa*). Lantzekoak denon artean arrazoituz erabaki ditugu, adinerako egokiak direnak, bai talde kooperatiboetan lantzekoak kontutan edukiz, batetik. Bestetik, egunak aurrera doaz, argazkilariek objektuei argazkia atera eta askok “altxorrak” ekarri dituzte gelara jada. Esan bezala oraindik denek ez dituzte objektuak ekarri, beraz, lan talde bakoitzeko objektu bana aukeratu dugu, formak eta umeen izaerak eta beharrak kontuan izanik, (*ikus. material argazkiak*). Beharrezkoak izango diren, zuzenkia eta pisua eskura jarri. Ohiko objektuak dira, trebezia hauek landu behar ez badituzte ere, funtzioa ezagutzea komenigarria dela deritzogu.

ZER DA?	FORMA	
AURPEGIAK	ERPINAK	PISUA

1. Fitxa



11. irudia. Materiala 1




12. irudia. Materiala 2

Garapena:



13. irudia. Arrautza aztertzen




14. irudia. Lego pieza aztertzen




15. irudia. Lego pieza neurtzen.



16. irudia. Tapa aztertzen.



17. irudia. Itxasne eta Antonioren posizio arazoak.



18. irudia. Asier idazketa akatsak zuzentzen.

Ebaluazioa:

